



**JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,**

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko abenduaren 21ean, **651** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

**IKUSIRIK:** 2020ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian erroldatuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, **HABE** edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2019-2020 dagokionari da.

Oinarri horiek 2020ko apirilaren 03ko (39. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

**KONTUAN HARTUZ:** Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2020ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

**GERTUA IZANIK:** Ania Caceres Lauzurica andreak, epean eta era egokian, 2019-2020 ikasturteari dagokion beka eskaria aurkeztu du.

**IKUSIRIK:** Udaleko Hizkuntza Normalizatzaillearen Teknikariak 2020ko urriaren 23an luzatutako txostena.

**KONTUAN HARTUZ:** Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 335.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

**ZERA ERABAKITZEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Ania Caceres Lauzurica andreari, 2019-2020 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horren zenbatekoa 269,80 €takoa da.

**BIGARRENA.-** Beka berehala ordaintzea 335.480.001 partidaren pentzutun.

**HIRUGARRENA.-** Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko abenduaren 21ean.



*[Handwritten signature in blue ink]*